

LARRINOA

Situado en la zona llana y céntrica del municipio cigoitiano, en la margen derecha del río Zalla y a una altitud media sobre el nivel del mar de 595 metros.

Son varias las denominaciones con que ha aparecido este lugar en distintos documentos y épocas. Así Larrinoa en el año 1257; Larrinua en 1294; Larrenoa en 1537 y Larrinua en 1769.

Larrinoa es uno de los lugares cuyo índice demográfico ha disminuido abismalmente en los últimos dos siglos. Así mientras a principios del siglo pasado disponía de 88 habitantes, al principio de éste eran 18 sus pobladores. En la actualidad, según el censo de 1982, sólo tres personas lo habitan. Esta pérdida de habitantes ha supuesto la desaparición de Larrinoa como entidad menor, pasando los caseríos a él abscritos a depender del Ayuntamiento como caseríos agregados a el.

El corto caserío que compone este lugar se halla en la margen derecha del río Zalla y a uno y otro lado de la carretera Gopegui-Ollerías que circula paralela al río.

LARRINOA

Zigoitiko udalerriaren alderdi lauean eta erdialdean kokatua dago, Zalla ibaiaren eskuinaldera, eta itsas mailatik batezbesteko 595 metroko altitudean.

Hainbat dira herri honi dokumentu desberdinetan eta aldi desberdinetan eman zaizkion izenak. Horrela, Larrinoa 1257an; Larrinum, 1294ean; Larrenoa, 1537an, eta Larrinua 1769an.

Larrinoa dugu, hain zuzen, azken mendeotan bere demografi indizearen beherakada era izugarri batean jaitsi zaion herrietako bat. Horrela, iragan mendearen hastapenetan 88 biztanle zituen bitartean, mende honen hasieran 18 besterik ez ziren bere biztanleak. Gaur egun, 1982ko zentsuaren arabera, hiru bakarrik dira bertan bizi diren pertsonak. Biztanle-galera honen ondorioz, Larrinoak galdu egin du bere entitate txiki bezala zuen izaera, gaur egun berari adskribatuak zeuden baserriak Udalaren menpekotasunera pasaz, beroni atxekiak bailiren.

Leku hau osatzen duen etxe-zerrenda laburra Zalla ibaiaren eskuin-aldera aurkitzen da eta ibaiaren alboan korritzen duen Gopegi-Olleriasko errepidearen alde banatara.



Tripleta: Fuente-Abrevadero-lavadero.
Molino.
Caserío n.° 9.

Hirukotea: Iturria-Edaska-Ikuztegia.
Errota.
9 zk. baserria.

El primer caserío que encontramos al atravesar el puente sobre el Zalla, al acercarnos desde Gopegui, corresponde a una unidad agropecuaria formada por tres cuerpos anexos cuya disposición forma en el centro un pequeño patio, anteriormente ocupado por la era.

La casa vivienda, de bonito y aseado aspecto, data del año 1906 según reza inscripción en el dintel del acceso. La parte anterior se destina a vivienda y la posterior a cuadras y pajar.

Frente a la casa se halla la peculiar y sencilla construccion que albergó al horno de pan.

Gopegitik hurbiltzean Zalla ibaiaren gaineko zubia zeharkatu bezain usu topatzen dugun lehen baserria, hiru gorputz eranskinez osatutako nekazal eta abelazkuntzako unitate bat dugu, berauen banaketak erdialdean barla txiki bat eratzen duelarik, garai batean larraina zena alegia.

Etxebizitza, polita eta txukun itxurakia, 1906koa da, sarrerako-atalburuan aurkitzen den inskripzioak dioen bezala. Aurreko partea etxebizitzatarako antolatua dauka eta atzekoa, berriz, ikuilu eta lastategitarako.

Eta etxearen aurrean, garai batean bere barruan ogia erretzeko labea eduki zuen eraikin berexi eta sinplea aurkitzen da.



Dos momentos distintos en el tiempo del caserío n.º 5.
Chabola que sustituye al caserío n.º 3.

5 zk. baserriaren bizitzako bi une desberdin.
3 zk. baserria ordezkatzen duen txabola.

A continuación y en la misma margen de la carretera se halla el otro caserío que conforman esta ya desparecida Entidad Menor. En este caso la fachada se orienta al Levante y con el fín de resguardarse de los vientos del Norte, la cabaña o portegado nace perpendicularmente a aquella. La distribución interna de la casa es semejante a las de la zona, con la cocina, portal y otra pequeña dependencia ocupando la parte anterior y las cuadras que ocupan la posterior en su planta baja, y las habitaciones y el pajar en el piso.

Jarraian, eta errepidearen albo berean, jadanik suntsitua den Entitate Txiki hau osatzen duten baserrietako bestea aurkitzen dugu. Kasu honetan Ekialderantz ematen du fatxadak eta Iparraizeetatik babesteko xedearekin, etxordea eta aterpe bat daramatza, etxearekiko perpendikularki. Etxearen barneko banaketa, berriz, eskualde honetako gainerakoenen antzekoa da: sukaldea, ataurrea eta beste barrundegi txiki bat aurrekaldea okupatuz, eta ikuilua atzeko partea okupatuz. Behe-oinean hau guztiau. Pisuan berriz, gelak eta lastategia.

Caserío nº 3. Acusada pendiente de una de sus vertientes.
Alzado principal.
Acceso.
Puentecillo y portón de entrada.

3 zk. baserria. Bere isurialdeetako baten aldapa handia.
Altxaera nagusia.
Sarrera.
Zubitxoa et sarrerako atetzarra.

El último caserío que conformaba esta Entidad Menor, ha sido recientemente derruido, levantándose en su lugar una simple y rudimentaria cabaña de bloques de hormigón. En antiguo caserío, como se puede apreciar en la documentación fotográfica adjunta, costaba de dos plantas mas sobrado. La fábrica era de mampostería con gran carga de cal, excepto recerco de huecos y esquinales que poseían sillares. El acceso a la vivienda se hallaba descentrado, poseyendo una muy rústica cruz grabada en su dintel. El acceso a las cuadras se ubicaba en el extremo izquierdo de la fachada, es decir, en el extremo de la misma más cercana al portón con tejadillo de alterreno de dicha unidad agropecuaria.

Entitate Txiki hau osatzen zuten azken baserria, eratsia izan da oraindik berrikitan, berroren ordez edo lekuan hormigoi-blokezko txabola sinple eta oies bat eraikiz. Lehengo baserria, alboan ematen dugun argazkizko dokumentazioan ikus daitekeenez, bi oin gehi ganbaraz osatua zegoen. Fabrika berriz, harlangaitzezkoa zen, kare-karga handiarekin, baoen azpaduretan eta etxe-kantoietan izan ezik, hauetan harlanduak zeramatzan eta. Etxeko sarrera deszentratua zuen, eta gurutze oies bat grabatua bere atalburuan. Ikuiluetarako sarrera, berriz, fatxadaren ezkerreko muturrean zeraman, hau da, nekazal eta abelazkuntzako unitate honen teilatutxoarekiko atetzarretik hurbilen aurkitzen zen muturrean.